


GIPUZKOA
Urteko Memoria
2016



Pertsonengandik gero eta hurbilago



Gurutze Gorria



José María de Elorduy
Gipuzkoako Delegatu Berezia



Gurutze Gorriak lanean jarraitu du Gipuzkoan 2016. urtean ere premia handiena dutenei laguntzeko eta gizartearen erronka humanitario garrantzitsueni aurre egiteko. Memoria honetan Gipuzkoako Gurutze Gorria osatzen dugun pertsona guztiok egin dugun lanaren, jardueraren eta ahaleginaren laburpena bildu dugu. Jende asko dago laguntza beharrean eta, aurrean ere, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen laguntzeko helburua garatu dugu.

2016. urtean, 68.429 pertsona artatu ditugu gure esku-hartze eremu guztietan. Eremu horiek honako hauek dira: Esku-hartze Sozialeko programak, Enplegua, Adinekoak edo Haurrak, baita Osasuna, Sorospena eta Larrialdiak eta Nazioarteko Lankidetzeta edo ingurumena ere.

Erronkaz betetako urte honetan, pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borroka egiteko proiektuei eman diegu lehentasuna. Muturreko kalteberatasun-egoeran dauden 11.424 pertsonari eskaini diegu laguntza, iaz baino % 22,5 gehiagori. Era berean, haurrengana eta gazteengana bereziki bideratu dugu geure ahalegina, eskolan arrakasta lortzeko eta arrisku-portaerak prebenitzeko proiektuen bitartez; adinekoen kasuan, bizi-kalitatea euren berezko ingurunean hobetzeko ekimenak indartu ditugu; krisiak gehien astindu dituen pertsonen dagokienez, enplegua sustatzeko edo pobrezia energetikoa leuntzeko proiektuen bitartez laguntzen diegu. Eta, nola ez, errefuxiatuei harrera egitea eta haiekin esku-hartzeak egitea erronka berria izan da 2016. urte honetan.

Hori guztia egin dezakegu ia 2.800 pertsonaz osatutako boluntario talde baten laguntza ordainezinari esker, 18.500 bazkide baino gehiagoren laguntzari esker eta erakundeen, finantzatzaileen, emaileen eta Administrazio Publikoaren parte-hartzeari esker. Horregatik, eskerrak eman nahi dizkiet egunez egun, beren laguntzarekin eta parte-hartzearekin, lan hau ahalbidetu duten pertsona guztiei.

Eskerrik asko bihotz-bihotzez.

IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun indibidualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

**GIZATASUNA • INPARTZIALTASUNA • NEUTRALTASUNA • INDEPENDENTZIA
• BOLUNTARIOTZA • BATASUNA • UNIBERTSALTASUNA**

16 ESKUALDE/HERRI BATZAR

Debagoiena (943 765 576)

Andoain (943 594 290)

Azkoitia (943 853 297)

Goierri (943 161 516)

Deba (943 191 032)

Donostia (943 222 222 / 943 320 989)

Eibar-Ermua (943 176 248)

Elgoibar (943 743 864)

Hondarribia (943 641 727)

Irun (943 621 162)

Lasarte (943 103 022)

Pasaia (943 354 151)


Errenteria (943 340 204)

Tolosa (943 674 888)

Urola Garaia (943 725 364)

Zarautz (617 452 341)

4



ZER EGITEN DUGU?

06 · OSASUNA

10 · SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

14 · ITSAS SALBAMENDUA

16 · PREBENTZIO, SOROSPEN ETA SALBAMENDU ZERBITZUA GIPUZKOAKO HONDARTZETAN

18 · GIZARTE ESKU-HARTZEA

22 · ENPLEGUA

24 · PRESTAKUNTZA

28 · INGURUMENA

30 · GAZTEEN GURUTZE GORRIA

34 · NAZIOARTEKO LANKIDETZA

NORK EGITEN DU?

36 · BOLUNTARIOTZA ETA LANGILEAK

40 · TOKIKO GARAPENA

NOLA EGITEN DUGU?

42 · BALIABIDEAK

44 · KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

NOLA FINANTZATZEN DA?

46 · FUNTSAK ESKURATZEA

GIPUZKOAKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

48 · KUDEAKETA EKONOMIKOA

50 · JARDUERA DATUAK

KALITATE ZIURTAGIRIAK

FINANTZAILE ETA LAGUNTZAILEAK



OSASUNA

Ohitura eta bizimodu osasungariak sustatzea.

...

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) honela definitzen du osasuna: gaixotasunik edo ondoezik eza ez ezik, erabateko ongizate fisikoa, mentala eta soziala. Horregatik, Gurutze Gorrian osasuna zeharkako kontzeptu bezala hartzen dugu, gure zereginaren oinarria dena eta hainbat kontzeptu fisiko, psikologiko, sozial eta ingurumen-arlokoen bitartez lantzen duguna.

prebentziotik -nahaste edo arazo baten eraginpean dauden edo haien eraginpean egoten hasi diren biztanleekin egiten diren ekintzak- eta hirugarren mailako prebentziotik bideratuta -dagoeneko arazo bat sortu denean egiten diren babes- edo laguntza-ekintzak-.

OSASUN PLANA

Osasun-arlotik hainbat jarduera egiten ditugu, lehen mailako prebentziotik -arriku, jokabide edo nahaste bat ager dadin saihesteko egiten diren ekintzak-, bigarren mailako

Gurutze Gorriaren osasun-plana, bere programa, proiektu eta jarduerari esker, herritarrei osasunaren sustapenean

6



lagungarriak izango diren oinarritzko jarraibideak ezagutarazteko helburuarekin iristen da Gipuzkoako kaleetara.

- > **ISTRIPUEN PREBENTZIOA:** istripuen prebentzioa ezaguri garrantzitsuenetako bat da osasunaren ikuspegi oso bati ekiteko garaian. Gurutze Gorriak trafikoko, etxe-ko eta aisialdiko istripuak prebenitzeko jokabideak eta jardun-jarraibideak eskaintzen ditu, herritarrei oro har eta arrisku handiagoa duten kolektiboek bereziki zuzenduta.
- > **GAIXOTASUNEN PREBENTZIOA:** gaixotasun baten agerpena saihesteko garaian kontuan izan beharreko mekanismoek buruz sentsibilizatzen dugu jendea, arrisku-faktoreak murrizteko. Informazio-kanpainak bitartez herritarrei eta arriskuan dauden kolektiboek aholku ematen diegu, gaixotasunen ondorioak arintzeko helburuarekin.
- > **OSASUNA SUSTATZEA:** "Bizitza osasuntsu eta segurua ahalbidetzeko" ildo estrategikoari jarraitzen diogu, bizitza osasuntsurako ohiturak sustatuz herritar guztien eta, bereziki, kalteberatasun-faktore gehiago dituzten kolektiboek bizi-kalitatea hobetzeko.

Horretarako, hainbat proiektuen honako jardun-ildo hauek lantzen ditugu:

“Osasun Komunitarioaren Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektua

Osasun Komunitarioaren barruan, Gipuzkoako Gurutze Gorriaren “Osasun Komunitarioaren Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektuak osasunaren arloa lantzen du bizilagunen artean. Pertsonen trebakuntza eta arazo-konponketa auzotasun ona oinarritzat hartuz lantzen dira (pertsonen eta taldeen autonomia, parte-hartzea eta ahalduak sustatzea), komunitatea “Atari solidarioa” gisa hartuz.

Horrek guztiak bizilagunen dinamizazioa bultzatzen du eta komunitatearen parte sentitzen jarraitzeko funtsezko laguntza ematen du, proiektuak prestakuntza, emozioei eustea eta laguntza eskaintzen dituelako.

“Donostia Lagunkoia” proiektua

Ekimena Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sustatzen du, eta estatuko eta nazioarteko beste hainbat hiritan ere abian dago. Donostia herritarrentzat oro har eta adinekoentzat bereziki hiri hobe bihurtzea da helburua.

Zahartze aktibora, parte-hartzera eta bizi-kaliterara bideratutako ekintzak sustatzeko xedez, Udalak kontraste, balidazio, proposamen eta kontrolerako talde bat biltzen du, eta “Osasun Komunitarioaren Sustatzailea eta Atari Solidarioa” proiektua bertan dago sartuta.

MUNDU EGUNAK

Osasunaren Mundu Eguna

Gurutze Gorriak Gipuzkoan Osasunaren Mundu Eguna ospatu zuen apirilaren 7an, “Berrikasi, bizitza osasuntsua egin eta diabetesa prebenitu” lelopean. Herritarrei zuzenduriko sentsibilizazio ekintza ezberdinak antolatu ziren bizimodu osasungarriak sustatzeko arauak eskainiz; sedentarisismoa, gizentasuna eta obesitatea ekiditea, ariketa fisiko osasungarria eta ohikoa egitea, alkohol gehiegi ez hartzea eta “dieta mediterranea”rekin elikatzea besteak beste.

Kanpaina apirilaren 7tik eta 21era bitartean egin zen. Sare





sozialen bitartez hedatu zen eta informazioa emateko hainbat stand ipini ziren Donostian, Errenterian, Lezon, Oiartzunen, Beasainen, Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen.

Lehen Laguntzen Mundu Eguna

Lehen Laguntzen Mundu Eguna zela medio, Gipuzkoako Gurutze Gorriak irailaren 12an herritarrek gai horretan gaitzeko prestakuntza- eta informazio-saio bat egin zuen Donostian.

Egun horretan lehen laguntzen doako tailerrak eta bihotza eta birrikak suspertzeko tailerrak egin ziren, eta istripuen prebentzioari, ENE jokabideei (Erreparatu arriskuari – Neurtu arriskuak – Eutsi jarrera seguruari) eta BAS jokabideei (Babestu – Abisatu – Sorostu) buruzko informazioa eman zen.

KANPAINAK



Etxeko istripuen prebentzioa

3.077 parte-hartzaile



Aisiako eta astialdiko istripuen prebentzioa

5.000 parte-hartzaile



Sexu-transmisioko gaixotasunen prebentzioa

2.026 parte-hartzaile

PROIEKTUAK



Osasun Komunitarioa

6.773 parte-hartzaile



Osasuna eta jokabide mendetasun-sortzaileak

328 parte-hartzaile

OSASUN PLANEAN GUZTIRA 17.204 parte-hartzaile

OSASUNeko JARDUNA K



Osasuneko jardunak

Erabiltzaileentzako orientabide, informazio, bitartekaritza, asistentzia, laguntza eta jarraipenerako jardunak

1.580 parte-hartzaile





SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

Hondamendietarako prestakuntzaren eta larrialdietarako esku-hartzearen alorrean eraginkortasuna eta efizientzia hobetzea.

...

Gurutze Gorriak kolektibo ahulenen alde garatzen du bere jarduera, eta Sorospen eta Larrialdietako Esku-hartzearen bitartez jendeari istripu, hondamendi, larrialdi edo arrisku-egoeretan arreta eskaintzera bideratutako baliabide material eta giza baliabide guztiak kudeatzen ditu.

LARRIALDIETAN BEREHALAKO ERANTZUNA EMATEKO TALDEAK (LBET)

LBETak biktimen premiei arreta emateko diseinatutako erantzun-eredu bat dira, premia horietarako beharrezkoak eta egokiak diren zereginak eginez. Beharrezkoa izango da erantzun espezializatua ematea, taldeak herritarren parte-hartzea erraztuko duen esparrua izan dadin ahalegin-duz, boluntarioak direlako. Gipuzkoan 2016ean 142 boluntario zeuden LBETetan.

- > **Esku-hartze Psikosozialeko LBET:** Larrialdi-egoera baten eraginpean dauden biktima, senitarteko eta/edo hurbilekoei arreta integratzaile egokia emateko prestatuta dago talde hori, eraginpekoek dituzten premia psikologiko, sozial eta sanitarioei arreta eskaintzeko xedez.
- > **Lurreko bilaketa eta salbamendurako LBET:** Talde horrek desagertu eta/edo galdu egin diren pertsonen bilaketa-ekintzetan laguntzen du, lurrian (naturaguneetan eta abar) miaketa-eragiketak planifikatuz eta egikaritzuz. Era berean, biktima segurtasun-baldintzetan eta salbamendurako prestatzeko beharrezkoak diren ekintzetan laguntza eskaintzen du, haren osotasun fisikoa arriskuan dagoen egoeretan.

LARRIALDIETARAKO ERAGIKETAK

Larrialdi- eta/edo krisi-egoeretan dagoen jendeari laguntza emateko martxan jarritako ekintza zehatzak dira. Aginte publikoen erantzunarekin koordinatuta eta modu osagarrian egiten dira. Larrialdi-eragiketak babes zibilak ematen duen erantzun publikoaren zati izateko ahalegina egiten da.

Horren adibide Donostiako udala da, Gurutze Gorriak udalarekin akordio bat baitauka uhinaldien, euriteen, uholdeen eta/edo elurteen kasuan eta larrialdietan laguntzeko.





PREBENTZIO-ZERBITZUAK: LEHORREKOAK ETA URETAKOAK

Jende asko bertaratzen delako edo ekitaldiaren ezaugarri bereziak direla medio arriskua sor daitekeen ekintza edo ekitaldi batean aldez aurreko plangintza bati erantzunez Gurutze Gorriak egiten dituen antolaketa eta arreta sozio-sanitarioko jardunak dira.


Adibidez kirol-ekitaldietan, ikuskizun eta kontzertuetan, herriko eta zaindariaren jaiegunetan, eta kultura- eta gizarte-ekintzetan egiten dira.

Gurutze Gorriak estrategia integral sanitario bat definitzen du, balizko larrialdi kolektiboak nahiz kasu bakoitzean sor daitezkeen laguntza sanitario indibidualeko premiak esaltzeko prestatuta dagoena.



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK	ARRETA EMANDAKO PERTSONAK	EGINDAKO ZERBITZUAK
LBET	1	19
Prebentiboak	12.013	4.190
Prebentiboak lehorrean	1.968	2.172
Prebentiboak uretan	10.045	2.018
Osasun-garraioa	267	268
Estaldua sanitarioetatik eratorriak	257	257
Zerbitzu ez-urgenteak	4	4
Larrialdi sanitarioak	6	7
GUZTIRA	12.281	4.477

12



2,18%

Osasun-garraioa

Artatutako **267** pertsona
Prestaturiko **268** zerbitzu

97,81%

Prebentiboak

Artatutako **12.013** pertsona
Prestaturiko **4.190** zerbitzu

0,01%

LBET

Artatutako **1** pertsona
Prestaturiko **19** zerbitzu





ITSASOKO SALBAMENDUA

Gizakien bizien segurtasuna itsasoan.

...

Gipuzkoan lau itsas base daude, non Itsasoko Salbameduko Programa gauzaten den: Zarautz-Getaria, Donostia, Pasaia eta Hondarribia. Programa horren helburua itsasoko istripuetan bizitza eta osasuna arriskuan dagoela ikusten duten pertsonen bizitza babestea da, Itsasoko Salbamedurako Estatuko Sozietatearekin (SASEMAR) lankidetzan.

Eremu horretan garatzen diren jarduera nagusiak honako hauek dira:


- Gizakien bizitzaren salbamendua.
- Kostaldean desagertutako pertsonen bilaketa eta erreskatea.
- Bizirik dauden pertsonen bilaketa-eragiketetan laguntzea.
- Kutsaduraren aurka borrokatzeko eragiketetan laguntzea.
- Arriskuan dauden ontziak atoian eramatea.

2016an 317 esku-hartze egin ziren Gipuzkoan, eta 94 lagun eman zitzaien laguntza. Probintziako salbamedurako baseek 267 boluntario dituzte.





BATZARRA	GURUTZE GORRIA	EUSKO JAURLARITZAK LAGATAKOAK
Donostia	Zurriola I	Igeldo I
	Edos	Guetaria II
	Zulu 82	
	Uretako motorrak (3)	
Hondarribia	Hondar Primera	Guadalupeko Ama
	Olearso	Aldabe
	Higer	
Pasaia	Uretako motorra	Mendiola
Getaria	Zarautz I	Arriluce II
		Hondarribia II
	Uretako motorrak (2)	



PREBENTZIO-, SOROSPEN- ETA SALBAMENDU-ZERBITZUA HONDARTZETAN

Babesa Gipuzkoako hondartzetan.

...

16

Gurutze Gorriak hondartzetan egiten duen lanak hainbat jardun-ildo hartzen ditu barnean. Alde batetik, arriskuan dauden pertsonak salbatu eta sorostea, eta osasun-laguntza eskaintzea hondartzan bertan edo botikinean, eta/edo osasun-zentroetara eramatea. Bestetik, prebentzioa hartzen du oinarritzat istripuak edo osasunerako arriskuak diren jokabideak saihesteko bide gisa.

Zerbitzu horrek, era berean, gizarte-laguntza osagarria eskaintzen du hondartzetan, mugigarritasun-arazoak dituzten pertsonen hondartzarako sarbidea eta bainatzeko

aukera erraztuz, lagundutako bainuaren eta makulu anfibioen bitartez.

2016ean, 10.331 arreta egin ditu sorospen eta salbamendu zerbitzua eskaintzen duen Gipuzkoako 14 hondartzetan. Hauetarik gehienak osasun arretak izan dira. Laguntza sozialak, galdutako umeen kudeaketa, erreskateak eta mugikortasun arazoa duten pertsonentzako bainu lagunduak ere egin dira.

8.515 osasun-arreta eskaini ziren, hauetarik laguntza




gehienak ebaki eta zaurietarako (3.595) eta xabiroi ziztadarako (1.401) izan ziren, ondoren traumatismo itxiak (1.027). Gurutze Gorriak hondatzetan, baita ere bainularien erreskateak (183) edo eta osasun zentroetara ambulanziaz eramateak (243) burutzen ditu. Nabarmeneko datua erreskaten kopurua da, joan den urtean baino 75 erreskate gutxiago egin dira eta.

243 galdutako pertson erregistratu dira. Giza-arreten barne 1.147 interbentzio egin dira. Mugikortasun murriztua eta ezintasunaren bat duten pertsonentzako 678 lagun-

gutako bainu eskaini dira eta makulu anfibioak 469 aldiz erabili dira.

Zerbitzu horren helburua, jende asko bertaratzen denez uda-garaian gertatzen diren arrisku-egoerak prebenitzea da. Horrela, hondartza horietara eta inguru hurbilera joaten diren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jartzen duten egoerak eraginkortasunez egonkortzeko sistema bat ezartzen da, hiru funtsezko zutaberen bitartez: prebentzioa, erreskatea eta lehen laguntzak.

GERTAKARI MOTAK

OSASUN-LAGUNTZAK **8.515**ERRESKATEAK **183**

8.698 GUZTIRA 100%



GIZARTE ESKU-HARTZEA

Ahulezia-egoera larrian dauden pertsoneri laguntzea.

...

IMMIGRAZIOA ETA ERREFUXIATUAK

2016ko maiatzaz geroztik, Gurutze Gorriak errefuxiatuei eta nazioarteko babesa eskatzen dutenei laguntzen die Gipuzkoan.

18

Gurutze Gorriaren **Nazioarteko Babesaren Eskatzaileen eta Onuradunen Programaren** barruan, egoera kalteberan dauden pertsona horien egoera hobetzeko ekintzak egiten ditugu eta, horretarako, orientazioa eta arreta soziala eskaintzen diegu, aholkularitza juridikoa, esku-hartze psikologikoa, prestakuntzaren eta lanaren arloko orientazioa eta bitartekaritza, baita onuradunei oinarrizko premiak betetzeko aukera bermatzeko prestazio ekonomikoak ere.

Programan aurreikusitako esku-hartzea 18-24 hilabetekoa izan daiteke eta gure herrian gizarteratzea du xede. Esku-hartzeak hiru fase ditu; harrera, gizarteratzea eta autonomia. Harrerako lehen fasean, udaletxe eta Alokabideren kolaborazioari esker, ostatu hartzeko baliabideak ditugu 4 herritan; guztira 64 plaza eskaintzen ditugu: 24 Donostian, 18 Eibarren, 6 Ermuan eta 16 Arrasaten.

Gure probintziara iristen diren etorkinei eta errefuxiatuei zuzendutako hainbat proiektu kudeatzen ditugu.

Lehen Harrera eta gizarteratzea: Programaren helburu nagusia zera da, gizarte-bazterkeriaren egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri harrera egitea eta gizarteratzeko aukera handiagoa izan dezaten lortzea, atzerritarrentzako informazio eta orientazio sozial eta juridikoko zerbitzuen bitartez, gaitasun-tailerren bitartez, aisialdiko jardueren bitartez eta gaztelania irakasteko eskolen bitartez. Kalean bizi direnei laguntzen diegu: gosaria eta garbitzeko aukera eskaintzen diegu.

Gizarte-laguntza adinekoentzat: Baliabide komunitarioetara heltzeko muga gehienak dituen kolektiboaren gizarteratzea sustatzen dugu. Horrela, laguntzen duen pertsonak bideratzaile, zubi eta bitartekari gisa dihardu egoeren eta baliabideen artean, eta ibilbideak diseinatzen eta gauzatzen laguntzen du.

"AholkuSarea" lege-laguntza eta laguntza juridikoko zerbitzua: Atzerritartasun Zuzenbidean espezializatutako aholkularitza juridikoko zerbitzua. Etorkinen kolektiboaren premiak esaltzen saiatzen da arreta osoaren ikuspegitik, Atzerritartasun Zuzenbideari lotuta dauden eskaera guztiei arreta eskainiz.

Egonaldi Ertaineko Zentroak: Programaren helburu nagusia ostatu ematea da, gizarteratzeko proiektu batekin batera. Parte hartzen duten pertsonen oinarrizko premiak duintasu-



nez estali nahi dira, eta pertsona horien autonomia errazten duen eta pixkanaka gizarteratzea ahalbidetzen duen ibilbide bat diseinatu nahi da. Horretarako, hamaika etxebizitza ditugu bakarrik dauden pertsonentzat eta/edo familientzat, eta gizar-te-bazterkeriako erdi-mailan dauden espetxeratuentzat.

Algara eguneko zentroa: Gizarteratze-prozesuak babes-ten eta errazten ditugu (gizarte-premien estaldurari eus-teko laguntza, ongizate biopsikosoziala bultzatzea, ohitura osasungarrien sustapena, prestakuntza, aisia eta laguntza psikoemozionala) gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzat, autonomia pertsonaleko mailarik handiena sustatuz.

Kulturarteko bitartekaritza: Programa honen helburua komunikazioa eta elkar ulertzea hobetzea da, sor litezkeen kultura-gatazkei aurrea hartzea eta aldean arteko harremanak arautzea.

ADINEKOEKIN ESKU HARTZEA

Hainbat lan-ildo garatzen ditugu adinekoen arretari dago-kionez, eta horien artean pertsonak bere ohiko ingurunean jarraitzea ahalbidetzen duten zerbitzuen aldeko apustu era-bakigarria dago, adinekoen autonomia pertsonala eta parte-hartze komunitarioa indartuz.

Etxeko laguntza osagarria adinekoei zuzendutako proiektua da, etxe barruan eta etxetik kanpo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak autonomiaz egiteko zailtasunak dituz-tenentzat. Adinekoei zahartze-prozesuan daukaten bizi-ka-litatea hobetzea du xede, bizimodu autonomoa izan dezaten sustatuta eta etxetik kanpo bizi behar izateko une hori ahalik eta gehien atzeratzearen.

Adinekoentzako Sare Soziala: Enréd@te

Proiektu horren bitartez adinekoek ingurune hurbilean eta komunitatean izaten dituzten harreman sozialak hobetu nahi dira eta, harreman horietan oinarrituta, gizartean parte har dezaten sustatzea, bakardadeari aurre egitea eta belau-naldi arteko harremanak hobetzea bai familian, bai familiatik kanpo. Hartara, adinekoak etxean egon ahal izango dira aha-lik eta denbora gehien eta haien garapen soziala funtsezkoa izango da zahartze-prozesuan bizi-kalitatea hobetzeko.

Etxeko Telelaguntza

Adinekoari segurtasuna eta konpainia eskaintzen dion zer-

bitzua. Osasunarekin lotutako edo gizarte-arloko larrial-di-egoera baten aurrean, erabiltzaileak botoi bat sakatu eta laguntza eska dezake eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, beharrezkoak diren baliabide guztiak mobilizatuz.

MUTURREKO AHULEZIA-EGOERAN DAUDEN PERTSONAK

Programa honen helburua egoera ekonomiko oso txarrean dauden pertsonen eta familien laguntzea da, gizarte-bazter-keriaren arriskuan daudelako.

"Orain inoiz baino gehiago" deiaren prestazioak: gizar-te-larrialdiko loteak banatzen ditugu eta diru-sarrera txikiak dituzten familien hornidura-gastuak (argia, ura, gasa) es-taltzen ditugu: "energia-pobrezia" eta abar.

Elikagaien banaketa: Nekazaritza Bermerako Espainiako Funtsak (FEGA) Espainiako Gurutze Gorria izendatu du ba-naketa-erakunde elkartu gisa behar duten pertsonen elika-gaiak banatzeko.

GIZARTE-ZAILTASUNEAN DAUDEN HAURRAK

Gurutze Gorria egoera kalteberan dauden haurrekin konpro-metituta dago. Pobrezia eta bazterkeria-arriskuak eragin handia du haurren hazkuntza- eta garapen-prozesuan, eta desberdintasunak areagotzeaz gain, pobrezia belaunaldi batetik bestera transmititzea ahalbidetzen dute.

CRONO: Egoitza-harreran dauden 12 urtetik gorako haur eta nerabeentzako esku-hartze sozioedukatiboko zerbitzua da. CRONOk probintziako egoitza-harrerako baliabideekin elkarlanean jarduten du eskolan arrakasta lortzeko eta la-nerako prestakuntza-laguntza jasotzeko premiei erantzutearren; izan ere, arlo horiek indartuz gero, parte-hartze ko-munitarioa ez ezik, gizarteratzeko eta laneratzeko aukerak ere nabarmen areagotzen baitira, eta arretaren xede den kolektiboan ahulezia bereziko egoerak sortzea saihesten da.

Emantzipazio- eta laguntza-etxebizitzak: Gizarteratzeko plan indibidualen bitartez, Emantzipazio-etxebizitzetako eta Laguntza Espezializatuko Programako lantalde tekniko



eta boluntarioek gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden gazteekin lan egiten dugu.

"Eskutik" adingabeentzako laguntza: Foru Aldundiaren adingabeak babesteko zerbitzuak arreta ematen dien haurrei dago zuzenduta programa hori. Helburua da adingabearen gizarteratzea bultzatzea boluntarioen laguntzaren bitartez, hezkuntza-lanaren osagarri gisa.

"Txiki-Txoko" migrazio-prozesuetan murgilduta dauden emakumeen adiskidetzea: bakarrik, familia-babeseko sarerik gabe eta haur txikiekin dauden emakumeentzako adiskidetze- eta laguntza-zerbitzu bat da.

DESGAITASUNEN BAT DUTEN PERTSONAK

Desgaitasunen bat duten pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko dihardugu lanean. Norbanakoaren autonomia pertsonala sustatzera, mantentzera edo lehengoratzera bideratzen dugu ahalegina, ohiko bizilekuan jarrai dezan errazteko, gizarte-deserrotze eta -desintegrazioko egoerak saihestuz honako zerbitzu-sorta honen bitartez:

Desgaituei laguntzea hondartzetan: lagundutako bainua, aulki anfibioen eta abarren erabileran adituak diren pertsonekin.

Etxeko laguntza osagarria: laguntza indibiduala, espezializatua, pertsonaren ingurunean.

Aisia eta astialdia: aisia- eta astialdi-jarduerak; txangoak, festak eta abar.

Laguntza-produktuak: laguntza teknikoen mailegu-zerbitzua (gurpil-aulkiak, eskorgak, makuluak eta abar).

Garraio egokitua: garraio diskrezionaleko zerbitzua da, desgaitasun fisiko edo psikikoa duten pertsonak garraiatzeko prestatuta dauden ibilgailuekin egiten dena. Ohiko garraio publikoa erabiltzeko eragozpenak edo oztopoak dituztenentzat prestatua.

GAIXOTASUN MENTALA DUTEN PERTSONAK

Errehabilitazio psikosozialeko zentroa: erabiltzaileari eta bere familiari kalitatezko eguneko arreta espezializatua eskaintzen diegu, bakoitzaren benetako beharrak kontuan izanik, eta askotariko zerbitzuak eta programak ditugu horretarako.

Tutoretzapeko etxebizitzak: familiarekiko baliabide alternatiboa da, gune propioa, beren bizitza-ibilbidea garatu ahal izan dezaten.

GILTZAPERATUAK

Espetxea eta Birsozializazioa: askatasun-gabetu kalteberenak diren pertsonen sustapenean oinarritzen da proiektua. Haien gaitasunak indartzea da helburua, eta horretarako prestakuntzan, hezkuntzan eta arlo juridikoan egindako ekintzei laguntza eskaintzen zaie.

Gizartearentzat lan egitea: hainbat jarduera eskaintzen dizkiegu zigortuei, gizartearentzat lan egiteko jardunaldien bitartez, eta funtzio berrezitzailea du.



GIZARTE ESKU-HARTZEA	Gizonak	Emakumeak	Guztira
Pertsona etorkinak eta errefuxiatuak			1.532
Nazioarteko Babesaren Eskatzaileen harrera eta integrazioa	62	34	96
Lehen harrera eta gizarteratzea	260	177	437
Gizarte-laguntza adinekoentzat	21	6	27
AholkuSarea: lege-laguntza eta laguntza juridikoko zerbitzua	344	206	550
Egonaldi Ertaineko Zentroak	100	21	121
Algara eguneko zentroa	18	1	19
Kulturarteko bitartekaritza	206	76	282
Adineko pertsonak			369
Etxeko Telelaguntza	6	6	12
Etxeko laguntza osagarria	8	22	30
Adinekoentzako Sare Soziala	123	204	327
Muturreko ahulezia-egoeran dauden pertsonak			11.424
gizarte-larrialdiko loteen banaketa (energia-pobrezia...)	1.646	2.029	3.675
Elikagaien banaketa	3.094	4.655	7749
Gizarte-zailtasunean dauden haurrak			316
CRONO	34	10	44
Emantzipazio- eta laguntza-etxebizitzak	30	25	55
Akonpainamendua	89	21	110
"Eskutik" adingabeentzako laguntza	14	10	24
Migrazio-prozesuetan murgilduta dauden emakumeen kontziliazioa	10	73	83
Desgaitasunen bat duten pertsonak			1.041
Desgaitasuna duten pertsonen laguntza hondartzetan	198	236	434
Etxeko laguntza osagarria	14	21	35
Aisia eta astialdia	8	12	20
Laguntza-produktuak	48	66	114
Garraio egokitua	178	260	438
Gaixotasun mentala duten pertsonak			31
Errehabilitazio psikosozialeko zentroa	19	4	23
Tutoretzapeko etxebizitzak	6	2	8
Kartzela eta birgizarteratzea			172
Espetxea eta Birsozializazioa	107	2	109
Gizartearentzat lan egitea	55	8	63
GUZTIRA	6.698	8.187	14.885



ENPLEGUA

Pertsona kalteberen gizarteratze eta laneratzearen alde lan egiten.

....

ENPLEGU-PLANA

Kolektibo kalteberentzako enplegu-planaren bitartez Gipuzkoan gizarte- eta lan-laguntzarako programak garatzen ditugu, erakundearen konpromisoari erantzunez, hau da, bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen laguntzea gizarteratzeko eta laneratze bidea eraikitzen, autonomia lortzeko beharrezko tresnak eskainiz.

22

Prestakuntza edo lanbide-prestakuntza eskasa, lan-esperientziarik eza edo eskasa, edota enplegua bilatzeko mekanismoen desinformazioa direla medio lan-merkatutik urrun dauden pertsonen zuzenduta dago programa.

Helburuak:

- > Esku-hartzerako esparru bat eskaintzea, gizarteratzeko ibilbide pertsonalizatuak ezartzeko, arazo espezifikoak eta beren adina, sexua eta kulturatik eratorritako diskriminazio-elementuak dituzten emakume eta gizonen lanbide-kualifikazioa, enplegarritasuna eta gizarteratze eta laneratzea hobetzeko.
- > Pertsonen enplegarritasuna sustatu eta indartzea, gizarte-trebetasunen eta lanbide-konpetentzien eskuratzearen bitartez, eta pertsonak indartzea ingurune komunitarioan parte hartzeko, lehiatzeko eta lankidetzan jarduteko, eta ondorioz, gizarteratze eta laneratze ona lortzeko.

Proiektuak:

> ENPLEGURAKO INFORMAZIO- ETA ORIENTAZIO-NEURRIAK

Zerbitzu horrek eskaintzen du enplegu- eta prestakuntza-baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa, CV eta lanerako elkarrizketak egiteko aholkularitza, baita enplegua bilatzeko prozesurako laguntza ere, gaitasunak hobetuz eta informazioa zabalduz.

> IBILBIDE OSOAK GIZARTE-ZAILTASUNEAN DAUDEN ETORKINEKIN

Pertsonekin epe labur eta ertainean jardun-estrategia bat ezartzen duen proiektua da, baita egin beharreko ekintzen ibilbide bat ere, hiru jardun-neurriren bitartez: banakako eta taldeko orientazioa, konpetentzia pertsonaletarako prestakuntza, eta lan-bitartekaritza.



> **EMAKUMEENTZAKO LAN-IBILBIDEAK EGE-INCORPORA PROGRAMAREN BITARTEZ**

Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden emakumeen laneratzea erraztera dago bideratuta, beren gizarte-erantzukizun korporatiboa kolektibo kalteberen laneratzea erraztuz garatu nahi duten enpresekin zuzeneko lankidetzan jardunez.

> **IBILBIDE OSOAK KRISIALDIAREN ERAGINAGATIK GIZAR-TERATZEKO ZAILTASUNAK DITUZTEN PERTSONEKIN**

Krisialdiaren eraginagatik gizarte-arloko zailtasunak dituztenek lan-eremuan aukera-berdintasuna izatera bideratuta dago eta, horretarako, orientazioko, prestakuntzako eta bitartekaritzako ekintzetan parte hartzen dute, euren autonomia eta kualifikazioa handitzearen eta lana lortzeko aukera gehiago izatearren.

> **AKTIBAZIOA, ORIENTAZIOA ETA GIZAR-TERATZEKO LAGUNTZA GAZTE BERMEA SISTEMAKO GAZTEENTZAT**

Proiektu horren helburua zera da, Gazte Bermea sisteman izena eman duten gazteak aktibatzea, eta prestakuntzan eta lan-merkatuan parte har dezaten sustatzea. Hiru lan-ildotan egituratuta dago, elkarren osagarri:


1- Motibazioa eta aktibazioa haien interes-zentroetan, informazio esanguratsuan eta lan-merkatuarekin lotuko dituzten esperientzietan oinarrituta.

2- Lanbide-orientazioa erabakiak hartzeko, haien interesekin bat eginda eta lanbide-etorkizunarekiko ilusioa eraginez.

3- Bilaketa eraginkorrak egiteko aholkuak eta laguntza eskaintzea enpresekin aliantza estrategikoak eginez; hartara, lan-merkatuan sartzeko edo berriz ikasten hasteko aukera izango dute

> **BIGARREN AUKERA IZATEKO ESKOLAK GAZTE BERMEKO GAZTEENTZAT**

Proiektuaren helburua da hezkuntza-sistematik behar baino lehenago atera ziren gazteen edo DBH amaitu ez duten gazteen enplegarritasun-maila hobetzea; horretarako, araututako prestakuntzari ekin beharko diote berriro, edota lanbide-trebakuntza jaso beharko dute. Alderdi sozial nahiz pertsonalak lantzeko tailerrak eta jarduerak egiten dituzte, berriro ere hezkuntza-sisteman sartzeko eta lanbide bat ikasteko aukera izan dezaten; horretaz gain, prestakuntza-ekintzetan ere parte hartzen dute.



ENPLEGU-PLANAREN JARDUEREI BURUZKO DATUEN LABURPENA

1.407 pertsona (532 gizon / 875 emakume) enplegurako informazio- eta orientazio-neurrietan.

335 parte-hartzaile gizarte-zailtasunean dauden etorkinekin egindako ibilbide osoetan

89 parte-hartzaile (15 gizon / 74 emakume) lan-ibilbideetan Incorpora EGEaren bitartez.

251 gaztek (159 gizon / 92 emakume) jaso dute laguntza Gazte Bermean izena emateko.

44 % ko ratioa gizarteratzeko ibilbide-proiektuetan.

230 lankidetzak enpresekin



PRESTAKUNTZA

Giza eta lan prestakuntza.

....

Prestakuntza funtsezko eta zeharkako arloa da Gurutze Gorrian, prestakuntza-sailak, alde batetik, erakundeko boluntarioak eta langileak prestatu nahi dituelako beren esku-hartzeen kalitatea hobetuko duten gaitasunak eskura ditzaten, eta bestetik, erakundearen helburuak lortu nahi direlako zabalkunde soziosanitarioko prestakuntza-ekintzen bitartez, erabiltzaileen prestakuntza-aren bitartez, haien egoera hobetzeko eta gizartean eta lan-arloan baztertuta ez geratzeko, eta abar. Hori guztia prestakuntza-metodologia aktiboa, motibatzailea, parte-hartzailea eta praktikoa baliatuz.

24

Gure prestakuntza definitzen duten printzipioak honako hauek dira:

- > Prestakuntza taldean egiten da: taldea ikaskuntzagune gisa hartzen da.
- > Ezagutzen bilaketa bultzatzen du, ikaskuntzan aurrerapen kualitatiboa sartzeko.
- > Praktikatik eta ekintzatik bideratzen den ikaskuntza.
- > Ikaskuntzaren autoebaluazioa.
- > Pertsonaren eta gaitasunen garapena bultzatzea.
- > AENOR eta IQNETek emandako Kalitate Ziurtagiriak bermatutako prestakuntza, Prestakuntzarako Kalitate Sistemari lotuta, UNE-EN ISO 9001:2008 arauaren eta ISO 14001 kalitate-ziurtagiriaren arabera, honela zehazten dena: Gurutze Gorriaren prestakuntzaren diseinua, kudeaketa eta irakaskuntza.

Gipuzkoako prestakuntza sailak, Gurutze Gorriaren Prestakuntza Planari jarraiki, bere prestakuntza-ekintzak **lau ARLOREN** inguruan egituratzen ditu:

Esku-hartzerako prestakuntza:

Gizartean esku-hartzeko proiektuetan, sorospentarako eta larrialdietarako, osasun eta nazioarteko lankidetzarako arloetan parte hartzen duten boluntarioak gaitzen ditugu prestakuntza-ekintza ezberdinen bitartez.





Gizarteratzeko eta parte-hartzerako prestakuntza:

Prestakuntza honek pertsonen gizarteratzea eta gizartean parte-hartzea bultzatu eta enplegarritasuna hobetu nahi du. Prestakuntza-ekintza asko egiten dira, hezkuntza ez-formalari lotuta daudenak (ohitura osasungarriak sustatzea, gaitasun pertsonalak eta sozialak hobetzea, eta abar) nahiz enplegurako prestatzeko ekintzak (lanaren aurreko prestakuntza, lanbide-gaitasuna, gizarteratzea eta laneratzea, eta abar).

Oro har jendeari zuzendutako prestakuntza:

- > **Interes sanitarioko ikastaroak:** lehen laguntzak, oinarriko bizi-euskarria eta KDE, uretako sorospena, laguntza psikologikoa.
- > **Gizarte-intereseko ikastaroak:** mendeko pertsonak, adinekoak eta abar.
- > **Enpresa publiko eta pribatuentzako prestakuntza:** prestakuntza-eskaintza zabala ikastetxe, institutu, erakunde publiko eta enpresa pribatuentzat.

Erakunde-garapenerako prestakuntza:

Prestakuntza honekin Gurutze Gorriko pertsonen gaikuntza eta prestakuntza hobetu nahi da, erakundearen ideologia eta metodologia hedatzeko eta zereginak eta eginkizunak hobeto egiteko.

Enpresa eta erakundeei zuzenduriko prestakuntza:

2016an, enpresa eta erakunde ezberdinei prestakuntza eskaini diegu; Biometrics & Safety Ibérica, Frater prevención, Hazi, UPV/EHU, Aena, Colegio oficial de farmacéuticos de Gipuzkoa, Colegio Mary Ward, Grupo Eulen, In solutions, Atlético San Sebastián, Blas de Lezo: IES Náutico Pesquero de Pasaia, Hezi, SUMMA Aldapeta, BHI Antigua Luberrri, Lacunza, Federación Guipuzcoana de Fútbol, Txikiplanas, Iline Microsystems, Basque Culinary Center, Askora, Dürr, Bexen Cardio, Caser residencial, Gipuzkoako Foru Aldundia, San Patricio. English School, José María Usandizaga Institutoa, Hernani Lanbide Heziketa, Lanbide, ETS. Euskal Trenbide Sarea, Instituto de Formación Profesional Don Bosco, Maria Reina Eskola, Santo Tomas Lizeoa, Aitor Ikastola, IRESGI, Zuhaztzi Eskola Publikoa, CIFP Usurbil LHII, Irungo La Salle.



PROFESIONALTASUN- ZIURTAGIRIAK

2016. urtean, Donostian formakuntza zentro berri bat zabaldu dugu. Azken irekiera honekin 4 dira Gipuzkoan, hainbat prestakuntza-espezialitate irakasteko, LANBIDEK EGIAZTATUTA ditugun zentroak.



ZENTROA	EGIAZTATUTAKO ESPEZIALITATEAK
UROLA GARAIA	SANT0208. Osasun-garraioa.
	SSCS0208. Mendekoentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.
	SSCS0108. Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean.
GOIERRI	SANT0108. Biktima ugarirentzako eta hondamendietarako arreta sanitarioa.
	SANT0208. Osasun-garraioa.
	SSCE0110. Enplegurako lanbide-heziketaren irakaskuntza.
	SSCG0111. Telelaguntzako deien kudeaketa.
	SSCM0108. Eraikin eta lokaletako zoru eta altzarien garbiketa.
	SSCS0108. Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean.
	SSCS0208. Mendekoentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.
	SANC01. Arreta espezializatua Alzheimer dutenei.
	SANC10. Osasun-zaindaria.
	SANC3007. Erizaintzako laguntzailea geriatrian.
	SANC4007. Osasun mentaleko eta toxikomanietako erizaintzako laguntzailea.
TOLOSA	SANC01. Arreta espezializatua Alzheimer dutenei.
	SANC10. Osasun-zaindaria.
	SANC3007. Erizaintzako laguntzailea geriatrian.
	SANC4007. Osasun mentaleko eta toxikomanietako erizaintzako laguntzailea.
	SANT0108. Biktima ugarirentzako eta hondamendietarako arreta sanitarioa.
DONOSTIA	SANT0108. Biktima ugarirentzako eta hondamendietarako arreta sanitarioa.
	SANT0208. Osasun-garraioa.
	SSCE0110. Enplegurako lanbide-heziketako irakaskuntza
	SSCS0108. Pertsonen arreta soziosanitarioa etxean.
	SSCS0208. Mendekoentzako arreta soziosanitarioa gizarte-erakundeetan.
	AFDP0109. Ur-instalazioetako sorospena.
	AFDP0209. Sorospena ur-eremu naturaletan.
	SSCB0211. Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa.
	SSCB0209. Haurren eta gazteen aisialdiko jardueren dinamizazioa.
	SSCG0209. Gizarte-bitartekotza.

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIEN PRESTAKUNTZA



	Ikastaroak	Ikasleak		GUZTIRA
		Emakumeak	Gizonak	
Esku-hartzerako prestakuntza	31	137	263	400
Inklusio eta gizarte partaidetzarako prestakuntza	141	741	782	1.523
Biztanle guztientzako prestakuntza	284	1.235	2.069	3.304
Garapen instituzionalerako prestakuntza	37	172	139	311
GUZTIRA	493			5.538

27





INGURUMENA

Ingurumena kontserbatzeko eta hobetzeko kontzientziazioa eta sentsibilizazioa.

....

Ingurumena zaintzen eta babesten dugunean, pertsonen osasunaren eta bizi-kalitatearen alde lan egiten ari gara; horregatik, Gurutze Gorritik Ingurumena defendatzea sustatzen dugu eta, horretarako, ingurumenaren inguruan informazioko, sentsibilizazioko eta hobekuntzako ekintzak egiten ditugu, pertsona kalteberenen egoera hobetzeko.

Ingurumen Planaren barruan hobekuntza sozioambientalera bideratutako hainbat proiektu daude bilduta. Horietako batzuk zuzenean Gizarte Esku-hartzean egikaritzen dira, gure esku-hartzearen xede diren pertsonen konpetentzia pertsonalak lantzeko tresna gisa.

Ingurumen-sentsibilizazioa

Ohikoa denez, ingurumenaren alorreko hainbat mundu-egun eta mundu-aste interesgarri ospatzen ditugu. Egun horietan parte hartzearen helburua zera da, herritarrak baliabide naturalak aurrezteari eta kontserbatzeari lotutako erantzukizun indibidual eta kolektiboari buruz kontzientziatzea, Klima Aldaketa moteltzeko xedez; arreta berezia eskainiz baliabide hidrikoen erabilera eta kudeaketari, planetako toki askotan gertatzen ari den lehorte eta desertifikazioari, edota guk sortzen ditugun hondakinek gauzatzen duten arazoari.

Hezeguneen Mundu Eguna: Otsailaren 2an, "Hezeguneak gure etorkizunerako: bizitzeko baliabide jasangarriak" lelopean eman genion zabalkunde kanpainari, hezeguneek gizateriaren etorkizunerako funtsezko eginkizuna jokatzen dutela adierazteko.

Uraren Munduko Eguna: Nazio Batuak erakundeak esanbidez onartu du ura eta saneamendua izateko giza eskubidea;

beraz, giza eskubide guztiak baliatu ahal izateko edateko ur garbia eta saneamendua ezinbestekoak direla berretsi du. Martxoaren 22an ospatzen da Uraren Mundu eguna, eta aurten ura eta enplegua izan ditu ardatz, ura funtsezkoa baita bizitzeko eta ezinbestekoa garapen inklusiboagoa eta jasangarriagoa lortzeko. Gipuzkoan kanpainarekin bat egin genuen eta baliabide hidrikoak kontserbatzea eta zaintzea zein garrantzitsua den ikusarazteko material didaktikoa zabaldu genuen.

Ingurumenaren Munduko Eguna: ekainaren 5ean, sentsibilizazioko hitzaldi bat, tailerrak eta jolasak antolatu genituen Irunen eskola-arrakasta sustatzeko proiektuan parte hartzen duten haur eta boluntarioentzat, eta lehen aipatutako gaiak landu genituen.

Halaber, oro har, herritarrei ere helarazi zitzaizkien kanpainak, batik bat, Sare Soziales bitartez.

Baratze Ekosozialak


Baratze ekosozialen proiektua Tolosako eta Donostiako esku-hartze sozialeko planetik egikaritzen da.

Proiektuaren helburua parte-hartzaileen ongizatea hobetzea da, haien ingurune hurbileko ingurumena eraldatuta.

Ingurumen-Planari Buruzko datuen laburpena

6	Jarduera egin ditugu
569	Parte-hartzaile
5	Boluntario

Dibulgazioko materialaren **500** ale banatu ditugu





GAZTEEN GURUTZE GORRIA

Haur eta gazteentzako jardun-programak, hezkuntzaren ikuspuntutik.

...

Gazteen Gurutze Gorria (GGG) 8 eta 30 urte bitarteko haur eta gazteez osatutako Gurutze Gorriko gazteen atala da, eta bere ekintza nagusia haur eta gazteei dago zuzenduta, baita haien agente sozializatzaleei ere, euren garapen osoa eta autonomia pertsonala sustatuz eta euren inguru hurbilean ere jardunez.

30

Gazteen Gurutze Gorriko boluntarioek honako helburu hau lortu nahi dute beren borondatezko ekintzarekin: gure ingurunea aldatzea, gizarte bidezkoagoa izan dadin eta errespetu handiagoz joka dezagun, betiere pertsona garen aldetik geure bizitza-proiektua behar bezala garatu ahal izateko. Baina hori nola? Balioak transmitituta eta balioetan oinarritutako heziketaren bitartez, ohitura osasungarriak hartuta eta pertsonak erabat integratzeko prozesuen bitartez.

Gazteen Gurutze Gorriak askotariko ekintzak egiten ditu, baina azken helburua aldaketa eta eraldaketa sustatzea izanik beti, gizarte bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzearen; horretarako, haurrek eta gazteek eginkizun biziki garrantzitsua betetzen dute, aldaketa eragile diren aldetik.

ESKU-HARTZEA

Eskola Arrakastaren Sustapena

Eskola Arrakastaren Sustapena izeneko proiektuaren bitartez pobrezia eta gabezia materialeko arriskuan dauden familietako 3 eta 16 urte bitarteko haurrei eskola-laguntza ematen zaie. Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haurren eskola-arrakasta handitzen laguntzea da helburua, hura baldintzatzen duten pertsona-, familia- eta gizarte-izae-

rako arrisku-faktoreak eta babes bereziki zainduz.

Honako batzar hauetan egiten da: Irun, Hondarribia, Elgoibar eta Donostia.

Eskola Arrakastaren Sustapena	
71	Ibilbide individual
4.141	Merienda
4.883	Eskola-laguntzako esku-hartze eta osasun-sustapena
118	prestazio eskainiak (Eskola-materiala eta arropa)



Hezkuntza-jostailua

“Beren eskubideak jokoan” kanpainaren helburuak dira gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haur eta gazteen bizi-kalitatea hobetzea eta adingabeen garapen pertsonalerako trebetasunak jolasaren bitartez garatzea; aurtun, kanpaina horren barruan 1.525 haurrek jaso dituzte jostailu berriak.

CiberCaixas Hospitalarias proiektua

La Caixak eta Espainiako Gurutze Gorriak egindako hitzarmenaren ondorioz, Gazteen Gurutze Gorria CiberCaixas Hospitalarias izeneko programa garatzen ari da Zumarragako ospitalean.

Ospitaleratuta dauden pertsonen kolektiboari zuzendutako esku-hartzeen proiektu bat da, zehazki ospitalean bertan dagoen La Caixaren Zibergelaren eremuan. Jolas- eta atsedeen-jarduerak, berez, ospitaleratuta dauden pertsonen, haien familien eta adiskideen tratamendu- eta ospitaleratze-prozesua eramangarriagoa izatea ahalbidetzen duen terapia osagarria dira. 2016an, 334 pertsonak parte hartu dute proiektu honetan.

PARTE-HARTZEA

PINEO. Haur eta gazteen parte-hartzea

Haurren eta Gazteen Parte-hartzea proiektuaren (PINEO proiektua) helburua parte hartzeko gune bat izatea da,

baita aisialdirako eta denbora librerako gunea ere, haur, nerabe eta gazteei zuzendua. Helburu nagusia jolas- eta hezkuntza-ibilbide bat eskaintzea da, euren ingurunean Gazteen Gurutze Gorriaren bitartez gizarte-erlaketako agente izan nahi duten haur, nerabe eta gazteentzat.

- 108 ibilbide
- 592 esku-hartze

INFORMAZIOA ETA SENSIBILIZAZIOA

2016an informazioko eta sentsibilizazioko 27 ekintza egin ziren, 1.738 pertsona sentsibilizatuz honako gai hauei dagokienez:

- > Drogen kontsumoari buruzko prebentzioa
- > GIB/HIESaren eta beste gaixotasun batzuen inguruko hezkuntza eta prebentzioa
- > Baterako hezkuntza eta hezkuntza ez-sexista
- > Genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa
- > Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa
- > Hezkuntza-jostailua
- > ESIE (Larrialdietarako sentsibilizazio- eta informazio-taldeak)





HENRY DUNANT AISIALDI ESKOLA

Gazteen Gurutze Gorriak kalitatezko esku-hartzearen aldeko apustua egiten du, eta horregatik, jardueren programazioan, egikaritzean eta ebaluazioan egunero esku hartzen duten boluntarioen hezkuntzan arreta berezia jartzen du.

Gazteen Gurutze Gorriaren Astialdiko Eskolak gazteen sektorea sustatzea du helburu, astialdian gizarte- eta hezkuntza-proiektuetan eta animazio-proiektuetan modu aktibo eta eraginkorren esku hartzeko aukera ematen dieten ezagutzak eta trebetasunak emanez, eta aldi berean esperientziak partekatzeko gune bat sortuz.

2016an GGGren prestakuntza-ibilbidearen 9 prestakuntza espezifiko egin ziren, eta 105 boluntariok hartu zuten parte: 35 gizon eta 70 emakumek.

32

PROIEKTUA	Boluntarioak, gizonezkoak	Boluntarioak, emakumezkoak	PARTE- HARTZAILEAK
Gizarte-zailtasuneko egoeran dauden haurren eskola-arrakastaren sustapena	15	47	81
Hezkuntza-jostailua	66	100	1.832
Ospitaleratutako haurren arreta. Cibercaixa	17	16	334
PINEO - Haur eta gazteen parte-hartzea	14	24	108
Drogen kontsumoari buruzko prebentzioa	1	3	514
GIB/HIESaren eta beste gaixotasun batzuen inguruko hezkuntza eta prebentzioa	13	12	293
Baterako hezkuntza eta hezkuntza ez-sexista	9	11	169
Genero-indarkeriaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa	7	8	399
Ingurumenari buruzko informazioa eta sentsibilizazioa	7	5	7
ESIE (Larrialdietarako sentsibilizazio- eta informazio-taldeak)	2	7	44
Henry Dunant Aisialdi Eskola	1	15	105
GUZTIRA			3.886





NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Konpromiso humanitarioaren kanpoko proiektzioa.

...

LAGUNTZA HUMANITARIOA _____

Gipuzkoako Gurutze Gorriak hainbat ekintza egin ditu laguntza emateko, funtsak erakartzeko eta sentsibilizatzeko hondamendi eta larrialdi humanitarioei dagokienez. 2016. urtean, Gipuzkoatik 78.771 €-ko ekarpena egin dugu partikularren eta administrazio publikoen dohaintzekin, honako larrialdi humanitario hauetarako:

- > **LURRIKARA EKUADORREN.** Tapakiak eta plastikozko olanak bidali dira Pedernalesen lurrikara jasan dutentzat. FINANTZAKETA: Eibarko Udala, Tolosako Udala eta partikularren dohaintzak.
- > **MATTHEW URAKANA.** Uraren eta sanameneduaren zerbitzu jasagarriak eskuratzeko aukera hobetu da, eta higieneko eta koleraren prebentzioko jardunbideak eskaini dira. Hegoekialdeko departamentua. Haiti. FINANTZAKETA: Eibarko Udala, Urrietako Udala eta partikularren dohaintzak.
- > **LIBANOKO ERREFUXIATU-ESPARRUAN LAGUNTZA.** FINANTZAKETA: Gipuzkoako Batzar Nagusiak eta partikularren dohaintzak.

GARAPENERAKO LANKIDETZA _____

Aurten, garapenerako lankidetzako proiektuen alde egin dugu berriro ere, eta Gipuzkoako Gurutze Gorriak 169.347 € eman ditu honako proiektu hauetarako:

- > Osasun komunitarioa hobetzea osasunarekin, higie-nearekin eta saneamenduarekin lotutako jardunbide egokiak sustatuta, bereziki, eskoletan, eta lehen mailako arreta emateko zentroak birgaituta (Aklan probintzia, Filipinak). FINANTZAKETA: Eibarko Udala eta Zumarragako Udala.
- > Markala eta Niono osasun-barrutietan (Ségou eskualdea, Mali) bizi diren neska eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak babestea. FINANTZAKETA: Gipuzkoako Foru Aldundia.





GARAPENERAKO HEZKUNTZA _____

Urte osoan sentsibilizazioko hainbat ekintza egin ditugu:

- > **"Gizatasuna Babestu" argazki-erakusketa.** Gurutze Gorria eta Ilargi Gorriaren Nazioarteko Federazioaren irudiak dira, eta migratzera behartuta dauden eguneroko bizitza nolakoa den erakusten dute. Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin egin da erakusketa hau.
 - > **Lekua:** Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Campusa
 - > **Egunak:** otsailaren 8tik 29ra

- > **"Tirita bat baino askoz ere gehiago" Laguntza Humanitarioko erakusketa.** Kutxa batean, nazioarteko hondamendietan egiten dugun lanari buruzko informazioa eta ematen ditugun materialen lagin bat aurki ditzakegu. Erakusketa hori Irungo eta Tolosako Udalen laguntzarekin egin dugu.
 - > **Lekua:** Donostia
 - > **Eguna:** apirilak 15

- > **Lekua:** Tolosa
- > **Eguna:** ekainak 4

- > **Lekua:** Irun
- > **Eguna:** urriak 15

- > **"Gizatasuna Babestu" nahitaezko migrazioei buruzko hitzaldia.** Migrazio-prozesuetan sartuta dauden egorri buruzko datu interesgarrien eta zifren aurkezpena. Deustuko Unibertsitatearen laguntzarekin egin da hitzaldi hau.

- > **Lekua:** Deustuko Unibertsitatea, Donostiako Campusa
- > **Eguna:** otsailak 23

35

MUNDU EGUNEN OSPAKIZUNA _____

2016an hainbat mundu egun ospatu ditugu iritzi publikoa giza eskubideekin lotutako gaietan kontzientziazteko eta sentsibilizatzeko.

- > Ekainaren 20a, **Errefuxiatuaren Eguna.** Gatazka armatuak, pobrezia eta azpigarapena dira populazioaren nahitaezko desplazamenduen arrazoi nagusiak. Egun horretan, mundu osoko errefuxiatuen egoera zein den jakinarazteari eta sentsibilizatzeari ematen diogu garrantzia.

- > Abuztuaren 19a, **Laguntza Humanitarioaren Eguna.** Gatazka-eremuetan laguntza humanitaria ematen duten pertsonak babesteak duen garrantziaren berri ematen dugu.

- > Abenduaren 10a, **Giza Eskubideen Eguna.** Giza eskubideen eta egiten ditugun proiektuetan daukagun loturaren berri ematen dugu.



BOLUNTARIOAK ETA LANGILEAK

Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioetan datza.

...

BOLUNTARIOAK

Gurutze Gorria boluntarioen elkarte da. Boluntarioak libreki onartutako konpromiso solidarioaren adierazpen goren dira, eta konpromiso hori Gurutze Gorriaren eta Ilargi Gorriaren mugimenduaren idealak errespetatzen eta defendatzen gauzatzen da. Boluntarioei esker jardun dezake Gurutze Gorriak, erakundearen nortasunaren zigilu izanik, baita erakundearen jarraitutasunerako eta garapenerako baliabideak eta erakundearen oinarri ideologikoa ere.

Gurutze Gorriarentzat funtsezkoa da boluntarioak txertatzeko, sustatzeko eta erakundearen parte hartzeko prozesu homogeneoak eta eguneratuak izatea, betiere boluntarioen kudeaketa egokiak dakartzan premiei erantzutearren.


Boluntariotzaren eta Parte-hartzearen Planean boluntarioen kudeaketan bildutako jarduerak garatzen dira, eta horrela, erakundearen nahiz zerbitzua egiten dion gizartearen premia berriei erantzuna ematen diegu: boluntarioen sustapen-jarduerak, erakartzeko kanpainak, inkorporazio- eta orientazio-ekintzak, jarraipena, koordinazioa eta parte-hartzea.

Hori guztia abiapuntutzat hartuz, boluntariotzari eta erakarpenari buruzko sentsibilizazio-jarduerak egiten dira, boluntario izateko interesa adierazten duten pertsonen harrera egiten zaie, pertsona guztiek gure erakundearen toki egokia aurkitu ahal izan dezaten ahaleginduz, erakundeek boluntarioak aintzat hartzeko jarduerak egiten dira, eta abar.


36



BOLUNTARIOAK GIPUZKOAN



BOLUNTARIOAREN SOSLAIA





Boluntarioen Autonomia Erkidegoko III. topaketa


Azaroaren 26an izan zen Kursaal biltzar-jauregian **Euskal Autonomia Erkidegoko Gurutze Gorriko Boluntarioen Autonomia Erkidegoko III. topaketa**. Gurutze Gorriko 500 boluntario inguru bildu ziren topagune horretan, eta ekintza boluntarioan bizi izandako esperientziak eta egindako jarduerak partekatzeko aukera izan zuten. Ospakizun-eguna ez ezik, gure boluntarioen elkartasuna eta konpromiso humanitarioa saritzeko eguna ere izan zen.

Egindako lana eskertzeko plakak banatu genizkien hiru probintzietako 26 boluntariori, erakundean 25 urte baino gehiago daramatelako boluntario-lanetan. Halaber, Bizkaiko 2 eskualde-batzarrek eta Gasteizko Gizarte Larrialdiko Unitateak ere jaso zuten esker-saria. Horretaz gain, Andoaingo Gurutze Gorriko boluntario eta presidente Valentín Espejo jaunari hilondoko eskertza egin zitzaion.


Horrekin guztiarekin batera, hainbat boluntario-azokatan parte hartu dugu, boluntariotzaren balioa eta garrantzia sustatzeko, Gurutze Gorriak antolatu dituenetan nahiz beste erakunde batzuekin batera antolatutakoetan: Sareginez, tokiko eta eskualdeko administrazioak, EHU, Deustuko Unibertsitatea, Kutxa Fundazioa eta abar.

38

JARDUERA-ARLOAK



LANTALDEA 2016



LANTALDEKO PERTSONA
KOPURU OSOA 2016an
(hondartzekin)

124 **168** **44**


LANTALDEKO PERTSONA
KOPURU OSOA 2016AN
(hondartza gabe)

56 **204** **148**

LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA
2016AN PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO
(hondartza gabe)

GUZTIRA GIZONAK EMAKUMEAK


GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
16	12	4
145	35	110
3	0	3
14	3	11
23	5	17
3	0	3



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA
2016AN BATZAR BAKOITZEKO
(hondartza gabe)

GUZTIRA GIZONAK EMAKUMEAK

GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
1	0	1
5	3	2
20	6	14
2	1	1
6	2	4
12	2	10
1	0	1
11	2	9
0	0	0
1	0	1
5	3	2
3	3	0
1	1	0
2	1	1
8	1	7
3	2	1
123	29	94



TOKIKO GARAPENA

Erakundea sendotzea, pertsonengandik gero eta hurbilago egoteko.

...

Tokiko eta Eskualdeko Batzarrak euren erreferentziako inguruneko kolektibo kalteberek harremanetan egoten dira eta Batzarrek kolektibo horiekin egiten duten lana lurralde-saretik egiten dugun jardueraren funtsezko osagaia izaten da.

Ikuspegi horretatik begiratuta, Gurutze Gorriak tokiko sarearen funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko ekimenak bultzatzen ditu, Tokiko Garapen Planaren bitartez, betiere erantzun-ahalmenak indartze aldera. Hortaz, erakundearen konpromiso horri ahalik eta indar handienaz lagundu behar diogu, elkartasunaren izenean.

LURRALDE-DINAMIZAZIOA

Lurralde-lantaldeetan tokiko garapena bultzatzeko plangintzaren kultura sustatzea, gaitasunen eta beharizanen diagnostikoaren bitartez, eta dauden errealitateetara ego-
kitutako tokiko ekintzako planak definitzea.

ERAKUNDE MAILAKO SENDOTZEA

Batzarren gaitasunak sendotzea, inguruneko beharrezane eta Gurutze Gorriak Gipuzkoan dituen helburu estrategikoei behar bezala erantzuteko.

2016. urtean jarraipenerako 11 bilera egin ditugu, guztira, Donostiako eta Irungo tokiko batzarrekin eta honako departamentu hauekin: esku-hartze soziala, boluntarioak, Gazteen Gurutze Gorria, eta osasuna eta sorospenak. Askotariko gaietan babesa eskaini diegu, hala nola diru-laguntzen kudeaketan, barne-hobekuntzako ekintzak planifikatzen, ekintza boluntarioaren aukerei buruzko informazioa eta edukiak eguneratzen, esku-hartzeari buruzko datu-basearen administrazioan eta abar. Halaber, boluntarioen jarduera kudeatzeko aplikazioari buruzko 5 prestakuntza-saio egin ditugu eta 18 pertsonak parte hartu dute.





BALIABIDEAK

Ekipamendu materialak jarduera gauzatzeko.

....

BALIABIDEAK	
Anbulantziak	23
OBE-SVB (Oinarrizko Bizi Euskarria) ambulantziak	15
BEA-SVA (Bizi Euskarri Aurreratua) ambulantziak	8
Ibilgailuak	11
Garraio Egokitutako ibilgailuak	36
Osasun Postu Aurreratuen ibilgailuak eta ekipazioa	4
Ospitale mugikorra	1
Lur orotako ibilgailuak	19
Lur orotako ibilgailua - mendiko taldeak	12
Itsasoko eta hondartzetako Salbamenduari laguntzeko Lur orotako ibilgailua	7
Itsasontziak	15
AB maila	2
B maila	5
C maila aurreratua	3
C maila	5
Erreskateko uretako motoak	12
Erreskateko quad-ak	5
GUZTIRA	126



AMBULANTZIAK



IBILGAILUAK



GARRAIO EGOKITUTAKO IBILGAILUAK



OSASUN POSTU AURRERATUEN IBILGAILUAK ETA EKIPAZIOA



OSPITALE MUGIKORRA



LUR OROTAKO IBILGAILUAK



ITSASONTZIAK



ERRESKATEKO URETAKO MOTOAK



ERRESKATEKO QUAD-AK

KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Zorroztasuna eta informazio gardentasuna Gurutze Gorriaren jarduera gizartera hurbiltzeko.

...

Gipuzkoako Gurutze Gorriak, Erakundearen printzipioekin eta balioekin bat datorren komunikazio politikaren aldeko apustua egiten du. Komunikazioa bi norabidetan lantzen da: barne eta kanpo komunikazioa.

Gurutze Gorriaren jarduera kanpoko jendeari ezagutarazteko hainbat bide propio erabiltzen dira, www.cruzrojagipuzkoa.com webgunea, eta Facebook eta Twitter sare sozialetako soslaiak. 2016 urtean Facebooken 1.510 jarraitzaile izan genituen, 2015ean baino % 46 gehiago. Twitterren berriz, 2.916 jarraitzaile, 2015ean baino % 26 gehiago.

Era berean, harreman estua dugu komunikabideekin. 2016an 1.753 tarte izan ditugu komunikabideetan: 610 tarte prentsan, 598 komunikabide digitaletan, 452 tarte irratan, eta 92 agerraldi telebistan. 32 komunikatu eta prentsarako txosten bidali ditugu komunikabideetara, 8 agendako jakinarazpen eta 3 prentsaurreko antolatu dira. Hondartzetako sorospen zerbitzuaren aurkezpena, "Uda honetan maite ezazu zure burua" kanpaina eta jostailuen kanpainaren aurkezpena, besteak beste.

Azken 4 urteetan, komunikabideetan azaldutako albisteak % 44.3 gora egin du.

	2013	2014	2015	2016
Prentsa	375	490	560	610
Medio digitala	334	457	577	598
Irratia	422	377	415	452
Telebista	83	94	135	92
Aldizkariak	0	1	0	1
GUZTIRA	1.214	1.419	1.687	1.753

Hondartzetako komunikazioaren alorrean, bidalitako 100 prentsa oharrak eta hondartzen eta banderen egoerari buruzko informazioa emateko irratiz egindako 403 eta telebistan izandako 78 parte hartzeak azpimarratu behar dira. Guztira 718 agerraldi izan genituen komunikabideetan Gurutze Gorriak Gipuzkoako hondartzetan burutzen duen lana erakutsiz.

Gure eskerrona adierazi behar diegu Gipuzkoako Gurutze Gorriaren jardueraren hedapenean laguntzen jarraitzen duten komunikabideei.



<https://www.facebook.com/CruzRojaGipuzkoa>



@CruzRojaGip





FUNTSAK ESKURATZEA

Elkartasuna zabaltzen laguntzen duten 18.541 bazkide Gipuzkoan.

....

Gurutze Gorriari ekarpen altruistak egiten dizkioten lagunei esker, gure proiektuak finantza ditzakegu eta, aldi berean, erakundearen independentzia indartzen dugu. Gurutze Gorriaren loterien (Gabonetakoa eta apirilekoa) eta Urre Zozketaren txartelak erosten dituztenek eta bazkideek ere laguntzen digute Gurutze Gorriaren proiektuak gauzatzeko.

46

Gaur egun, Gipuzkoako Gurutze Gorriak 18.541 bazkide ditu; horietatik 18.010 pertsonak dira eta 531 enpresak. Bazkidearen profilari dagokionez, gehiengoa emakumezkoa dela nabarmendu behar dugu. 18.010 bazkide horietatik 10.802 (% 59,9) emakumeak dira, eta 7.208 (% 40,1) gizonak.

Azkenik, gipuzkoarron elkartasuna nabarmendu nahi dugu, azken urteotan bazkideen kopuruak gora egin duelako, 5.119 bazkide gehiago azken 6 urteotan. Era berean, ur-

teko batez besteko kuotak ere gora egin du: 2016an 114 euro (2015an baino % 3,6 gehiago). 317 pertsonak larrialdi deialdietara edota beste proiektuetara zuzenduriko dohantzak egin dituzte, guztira 91.502 euro emanez.

URREAREN ZOZKETA

Beste urte batez, maiatzean, ekainean eta uztailean Gurutze Gorriak Urrearen Zozketa jarri zuen martxan, Erakundearen jardueraren garapenerako finantzazio iturri ezinbesteko gisa. Aurten, txartelak dira Urre Zozketaren benetako bereizgarri. "Desberdintasunarekin amaituko duten zenbakiak" lelopean, gizarte osoarengana iritsi nahi dugu eta zozketaren helburua bera izango da, beti bezala, zozketaren oinarri: premia handiena dutenei laguntzea.

Gurutze Gorriak eta Urrearen Zozketak, gizartearen babes zabala dauka, hala nola, empresa eta erakunde ezberdinenak. Errealak eskaintako kolaborazioa oso garrantzitsua izan da guretzat, jokalaria eta talde teknikoaren laguntzak bultzada handia izan du Urrearen Zozketaren hedapenean. Hala nola, hainbat gipuzkoar artista eta abeslarik ere kanpainaren alde egin dute, Leire Martinez, La oreja de Van Gogh taldearen abeslaria, Alex Ubago edo Alex del Toro DJa besteak beste.




BAZKIDE KOPURUA


BAZKIDE KOP .

10.388
11.650
13.422
14.169
15.001
15.975
16.893
17.696
18.541

2008
2009
2010
2011
2012
2013
2014
2015
2016



2016KO BAZKIDEAK



38,8%

Gizonak

7.208 gizon

58,2%

Emakumeak

10.802 emakume

3%

Enpresak

531 enpresa

GUZTIRA 18.541 gizon, emakume eta enpresa





KUDEAKETA EKONOMIKOA

Gipuzkoako Gurutze Gorria zifratan.

....



GASTUAK JARDUERAREN ARABERA	%
Gazteriaren Gurutze Gorria	1,08%
Boluntariotza	1,27%
Gizarte esku-hartzea	50,77%
Osasuna eta sorospena	22,97%
Prestakuntza	6,51%
Kudeaketa eta administrazioa	6,52%
Bestelakoak (Nazioarteko Lankidetzta, Elkartasun Funtsa eta Funtzen Sustapena eta besteak)	10,88%
Guztira	100%

48



FINANTZAKETA ITURRIAK	%
Zerbitzuak eskaintzea	48,63%
Funtsak eskuratzea	21,54%
Diru-laguntzak eta dohantza pribatuak	23,63%
Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	0,73%
Finantzakoak	0,18%
Kapital diru laguntzak eta ez ohikoak	5,28%
Guztira	100%

GUZTIRA 11.370.929,02





JARDUERA DATUAK

127.997 zerbitzu eginda 68.429 partaide edo erabiltzaileentzat 2016an.

....

Partaideak eta zerbitzuak 2016	Partaide erabiltzaileak	Zerbitzuak
GIZARTE ESKU-HARTZEA	14.885	109.044
Adineko pertsonak	369	1.322
Urrakortasun egoeran dauden pertsonak	11.424	14.241
Gizarte zailtasunean dauden haurrak	316	10.965
Etorkinak eta errefuxiatuak	1.532	14.657
Desgaitasunen bat duten pertsonak	1.041	62.054
Gaixotasun mentala duten pertsonak	31	2.952
Kartzela eta birgizarteratzea	172	2.853
ENPLEGUA	1.407	
INGURUMENA	569	
PRESTAKUNTZA	5.538	493
GAZTEEN GURUTZE GORRIA	3.886	12.086
ITSAS SALBAMENDUA, SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK, HONDARTZAK	12.375	4.794
Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Taldeak eta bestelako larrialdiak	1	19
Zerbitzu prebentiboak	2.829	2.172
Hondartzetan prebentzio, sorospen eta salbamendua	9.184	2.018
Garraio sozio-sanitarioa	267	268
Itsasoko Salbamendua	94	317
OSASUN PLANA	17.204	1.580
INGURUNEAREKIN JARDUERAK	12.565	
GUZTIRA	68.429	127.997



KALITATE ZIURTAGIRIAK

Gurutze Gorrian kalitatea kudeatzeko oinarritzat hartzen den kalitate politika erakundearen misioa eta ikuspegiarekin lotuta dago.

Planetan, programetan eta proiektuetan kalitatea ezartzeko, kalitatearen arloko arauak eta sistemak ditugu euskarri; hala nola **ISO 9001 eta EFQM**.

2016an, Espainian, gure probintzian eta herrietan ezarritako kalitate sistema guztiei eutsi diegu. Sistema horiei barneko eta kanpoko ikuskapenak egin dizkiegu. Kanpokoez erakunde independente bat arduratu da, AENOR, Espainiako Normalizazio eta Ziurtapen Elkartearen hain zuzen, eta emaitza ona jaso dugu.

AENOREKO KALITATEZKO ZIURTAGIRIAK

- > Mugikortasun urria daukatenentzako garraio egokitua (talde-ibilgailua) Gipuzkoako probintziako eremuan.
- ISO 9001:2008 ER -1727/2008
- > Gipuzkoako hondartzetan Prebentzio, Salbamendu eta Sorospen eta bainu lagunduko zerbitzua.
- ISO 9001:2008 ER -0929/2009
- > Berezko prestakuntzaren diseinua, kudeaketa eta ikaraspena, presentziala eta on-line, arautu gabeko, etengabeko, okupazio-prestakuntza, Espainiako Gurutze Gorriko helburu eta xedeei lotua dagoena.
- ISO 9001:2008 ER -0385/2007

EZARRITAKO BESTE KALITATE SISTEMAK

- > Boluntariotzaren kudeaketa - ISO 9001:2008
- > Enplegu-plana – ONGconcalidad
- > Jardunbide egokiak, emailen itzaropenak, kudeaketa-osagaiak eta etengabeko hobekuntzak - ONG Benchmarking

51



ER-0929/2009



ER-1727/2008



FINANTZAILE ETA LAGUNTZAILEAK



52



”

Gurutze Gorriko kideok eskerrak eman nahi dizkiegu erakunde publikoei, enpresei, finantza entitateei eta fundazioei eman diguten laguntzagatik, haien ekarpenei esker, gure proiektuetako asko gauzatu ahal izan baititugu.

Gipuzkoako Foru Aldundia | Eusko Jaurlaritza | Donostiako Udala | Irungo Udala | Hondarribiko Udala | Errenteriako Udala | Lasarteko Udala | Urnietako Udala | Andoaingo Udala | Tolosako Udala | Beasaingo Udala | Urretxuko Udala | Arrasateko Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Bergarako Udala | Eibarko Udala | Ermuako Udala | Elgoibarko Udala | Debako Udala | Mutrikuko Udala | Orioko Udala | Zarauzko Udala | Getariako Udala | Zumarragako Udala | Azkoitiko Udala | Idiazabalgo Udala | Olaberriako Udala | Lazkaoko Udala | Ataungo Udala | Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa | Lanbide | Sasemar | Laboral Kutxa | Kutxa Fundazioa | LaCaixa | Bankia | Pasaiaiko Portua |

Enpresa pribatu, partikular, dohaintza emaile eta bazkide kolaboratzaile guztiak.

ESKERRIK ASKO denei.



Gurutze Gorria

Gipuzkoa